

opusdei.org

GAUR 50

Taldearen 50. urteurrena
ospatzen

2016 Aza 7

Zinema ziklo batek eta sinposio batek osatuko dituzte Museoarekin eta Nafarroako Gobernuarekin batera antolatutako Jardunaldiak, eta Jose Antonio Sistiaga, taldearen fundatzaileetako bat izango da amaiera emango diena.

Nafarroako Unibertsitateko *Euskal Hizkuntza eta Kultur Katedrak* Jardunaldi batzuk antolatu ditu,

zentro akademikoaren *Museoarekin* eta Nafarroako Gobernuarekin batera, *Gaurtaldearen 50. urteurrena* ospatzeko.

Talde hau 1966an sortu zen Donostiako Barandiaran galerian aurkeztutako agiri baten bidez, eta hauek izan ziren osatu zuten artistak: **Jorge Oteiza, Eduardo Txillida, Nestor Basterretxea, Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi, Juan Luis Zumeta, Amable Arias eta Jose Antonio Sistiaga.**

Topaketaren zuzendariak, Gabriel Insaustik, dioenez **“ekitaldia aukera on bat izango da artista talde honi buruz gogoeta egiteko; 1960. hamarkadan, benetan bultzagarri bilakatu baitzen Euskal arterako”.**

Ekitaldia Nafarroako Unibertsitate Museoan izango da. Urriko ostegun guztietan egingo den Zinema ziklo batek osatuko du. Bertan *Ama Lur, Urs, Operación H, Impresiones en la*

alta atmósfera, Homenaje a Tarzán, Dunbots y Nortasuna filmak pasako dira.

Halaber, **Sinposio** bat antolatu da urriko 27 eta 28an, non aditu batzuk parte hartuko dute, José Antonio Sistiagak, taldearen sortzaileetako batek, amaiera emanaz. Ekitaldia Iruñako Duguna Taldea-ren emanaldi batekin bukatuko da.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://
dev.opusdei.org/eu-es/article/gaur-50/](https://dev.opusdei.org/eu-es/article/gaur-50/)
(2025 Abu 11)